

### 2011ko EPE: GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIOA:

2011ko uztailearen 27ko EHAAren, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren uztailearen 15eko 1282/2011 Ebazpena argitaratu zen, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak onartzen dituena.

2011ko EPE webean, 2012ko abenduaren 17an, hurrengo kategorietako oposaketa-fasea gainditu dutenen zerrenden ebapenak argitaratu dira:

- Fisioterapeuta
- Gizarte-Langilea

Azken ebazpen honetan azaltzen diren **gainditutakoek** hurrengo epea izango dute, **2012ko abenduaren 18tik 2013ko urtarrilaren 7ra**, biak barne, dagozkien **betekizun eta merituak alegatzeko**, gaindituen zerrenda onartzen duen ebazpenean eta oinarri orokorretako 12.5 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Era berean, **hauta-proben emaitzei buruzko informazio eguneratua** argitaratu da, kalifikazio-epaimahaiak interesatuek aurkeztutako erreklamazioak errebisatu ondoren: erantzun-txantilo eguneratua eta emaitza eguneratuak.

**2011ko EPEko kontsulta pertsonalizatu**en bidez, gainditutakoek **Osakidetzak dituen datuak** ikusi ahal izango dituzte, ondokoei dagokienez: izan beharreko titulazioa, egindako zerbitzuak, prestakuntza, euskerako hizkuntza eskakizunak,...

**Betekizunak eta merituak alegatzeko prozesua** errazteko, hurrengo **informazio eta dokumentazioa** argitaratu da 2011ko EPEko oharren atalean:

- **Prozeduraren laburpen-koadroa**, betekizun eta meritu ezberdinak egiaztatze modua adierazten duena.
- Betekizunak eta merituak alegatu eta mekanizatzeko **jarraibideak**. Arreta berezia jarri behar zaio izan beharreko titulazio akademikoaren atala betetzeari.
- **Betekizunak eta merituak egiaztatzen dituen dokumentua**, gainditutako izangai guztiek bete, erregistratu eta epearen barruan entregatu beharko dutena.

**Erreklamazio-eredua**, interesatuek Osakidetzak eskainitako datuen aldaketa eskatzeko, beraiekin ados ez egoteagatik. Beste Administrazio Publikoetako esperientziari dagokionez, egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria entregatu beharko da, edo notarioak egindako kopia kautoa.

**Osakidetzan egindako zerbitzuak beste kategoria/lanpostu funtzional batera lotzeko dokumentua**, oinarri orokorretako 13.1.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan.

**Egindako zerbitzuak egiaztatzeko eredua**, beste Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak alegatzen diren kasuetan.